

**11/2019 EBAZPENA, MAIATZAREN 10EKOA, FUNTZIO PUBLIKOKO SAILBURUORDEARENA, 2018. URTEAN EMANDAKO ZERBITZUAK BERRIRO BAREMATU ONDOREN, INDARREAN DAUDEN LAN-POLTSEN ZERRENDAK ARGITARATZEKO XEDATZEN DUENA.**

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean eta haren erakunde autonomoetan aldi baterako zerbitzuak emateko langileak hautatzeari buruzko Gobernu Kontseiluaren Akordioak ezartzen duenez, baldin eta Akordio horren 1. artikuluan ezarritako ezaugarriak badituzte, lan-poltsetan sartuta dauden langileak EAEko Administrazio Orokorrean edo berorren erakunde autonomoetan bete dituzten zerbitzuen arabera birbarematuko dira.

Era berean gaineratzen du, lan-poltsetan daudenen puntuazioa 0,003 puntuz handituko dela aurreko urtean lanean emandako egun bakoitzeko. Horren ondorioz, egindako birbaremazioa 2018ko urtarrilaren 1etik 2018ko abenduaren 31ra arte, biak barne, emandako zerbitzuei dagokie.

Horregatik guztiagatik,

EBATZI DUT:

1.- Indarrean dauden lan-poltzak berriro barematzeari ekitea. Birbarematze horretan, 2018ko urtarrilaren 1etik 2018ko abenduaren 31era arteko epean, biak barne, eginiko zerbitzuak 0,003 puntuz egun bakoitzeko baloratuko dira, baldin eta EAEko Administrazio Orokorrean eta bere erakunde autonomoetan aldi baterako zerbitzuak emateko langileak hautatzeari buruz Jaurlaritzaren Kontseiluak hartutako Akordioaren 1. artikuluan ezartzen diren baldintzak betetzen badira.

2.- Eginiko zerbitzuak berriro barematzearen ondorioz sortutako lan-poltsen hurrenkera berria 2019ko maiatzaren 27an sartuko da indarrean.

3.- Birbaremazio horien emaitza diren zerrendak Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren webguneko [www.euskadi.eus/lanpoltzak](http://www.euskadi.eus/lanpoltzak) helbidean argitaratzeko agintzea.

Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa jarri ahal izango zaio Gobernantza Publiko eta Autogobernu sailburuari, hilabeteko epean, ebazpen hau Gobernantza Publiko eta Autogobernu webguneko [www.euskadi.eus/lanpoltzak](http://www.euskadi.eus/lanpoltzak) helbidean argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera kontatzen hasita.

Vitoria-Gasteizen, 2019ko maiatzaren 10ean

**FUNTZIO PUBLIKOKO SAILBURUORDEA  
ANDRES ZEARRETA OTAZUA**



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

GOBERNANTZA PUBLIKO  
ETA AUTOGOBERNU SAILA  
Funtzio Publikoko Sailburuordea  
DEPARTAMENTO DE GOBERNANZA  
PÚBLICA Y AUTOGOBIERNO  
Viceconsejería de Función Pública